

## 2008 EKITALDIAN TARIFA APLIKAGARRIAK

### HIRI HONDAKINEN TRATAMENDU ZERBITZUA, BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN:

"Hiri hondakin"aren definizioa: etxebizitza partikularretan, dendetan, bulegotan eta zerbitzutan sortutako hondakinak eta beren izaerarengatik edo konposaketarengatik lehen aipatutako toki edo ihardueretan sortzen diren hondakinekin bateragarriak litezkeen bestelakoak, beti ere arriskutsu izendapena jasotzen ez duten hondakinak direlarik.

- Etxetako zabor-bilketatik datozkeen hondakinak
- Azoketako hondakinak
- Etxetako ontzien sailkatze planten erreus zatikia.
- Landare-hondakinak, berdegunetako mantenimendu lanetan sortutakoak, konpostatzeko balio ez dutenak.
- Akabatutako animaliak
- Konfiskatutako elikagaiak edota egoera txarrean daudenak
- Elikagai arloko industrietako kosko eta hondarrak
- Haragi-industrietako eta hiltegitako hondakinak
- Janaridenda, supermerkatu eta merkatalgune handietatik datozkeen hondakin organikoak
- Beste zenbait hiri hondakin

**Tarifa aplikagarria: 65,00 €Tonako** (40,96 € zaborteziaren ustiaketara zuzenduak + 24,04 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

Bolumen handiko hondakinen tratamendua, esate baterako etxetako altzari, tresna elektriko eta baliorik gabeko bestelako traste zaharren tratamedua %100 handituko da ustiaketa zuzendutako tarifa zatian eta beraz, tarifa aplikagarria honako hau izango da: **105,96 €Tonako** (81,92 € zaborteziaren ustiaketara zuzenduak + 24,04 € 1999/31/CE Direktiba Betetzeko Berme-Fondorara zuzenduak).

### HONDAKIN INERTEEN TRATAMENDU ZERBITZUA, BEASAINGO "SASIETA" ZABORTEGIAN:

- Moldeagintzako hareak

Gehienez onartu daitekeen hare-kantitatea, bere kalitatea eta hornidura-maiztasuna mankomunitateko Zerbitzu Teknikoek erabakiko dute, aukeraketaren ondorioz zaborteziaren suteen aurka edota estaltze lanetan erabiltzeko harerik egokiena aukeratu etapilatzen.

**Tarifa aplikagarria: 10,30 €Tonako**

**HIRI HONDAKINAK ETA HONDAKIN INERTEAK UTZI, ALDI BATERAKO GORDE ETA KUDEATZEKO ZERBITZUA, URRETXUKO ETA BEASAINGO GARBIGUNEETAN:**

- Eraikuntza alorreko hondar inerteak: **28,80 €/Tm**
- Birziklatu ez daitezkeen zurkiak: **68,20 €/Tm**
- Birziklatu ez daitezkeen plastikoak: **89,70 €/Tm**
- Autotako gurpilak: **1,20 €/ gurpil bakoitzeko**
- Jolas eta aisialdirako makinak eta gaiak (tabakoa, kafea, edariak, janariak etab.) saltzeko makina automatikoak: **12,30 €/ makina bakoitzeko**